

I. ATALA TXILLARDEGIREN LANAREN OMENEZ



2

OMENEZ

Xabier Isasi Balanzategi

Euskal Herriko Unibertsitatea

Helbide elektronikoa: xabier.isasi@ehu.es

Hamar urte baino gehiago pasa dira Udako Euskal Unibertsitatea (UEU), Euskal Idazleen Elkarte (EIE) eta Euskal Kulturaren Batzarrea (EKB) erakundeek Jose Luis Alvarez Enparantza, *Txillardeg*i, Gipuzkoako Foru Aldundiak antolatutako *Anton Abbadia* saritara aurkeztea erabaki zutela. Artean, *Anton Abbadia* sariaren oinarri arautzaileen 1. xedeak honela esaten zuen: Anton Abbadia saria euskararen erabilera sustatu, babestu edo hedatzeko zereginetan nabarmendu diren erakunde, elkarte edo pertsona fisiko nahiz juridikoei eman ahal izango zaie. Saria emateko kontuan hartuko dira saritutako lan edo jardueraren kalitatea eta esanahia, eta euskararen normalkuntzaren alor guztietan egindako ekarpena. Halaber, saria ematerakoan oso gogoan izango da pertsona edo elkartearen orain arteko ibilbidea eta jarraitasuna.

Ez zioten saririk eman. Azken unera arte uste nuen eman ziezaioketela. Itxaropen horrekin joan nintzen sari-banaketa ekitaldira *Txillardegirekin*. Sikiera, aipuren bat. Merezki zuenari eman zioten, *Txillardegiri* ez, ordea. Lotsatuta eta atsekabeturik atera nintzen ekitaldi hartatik, *Txillardegiri* zer esan ez nekiela. Berak, jakina, ez zuen saririk espero. Nago, *Txillardeg*i Gipuzkoako Foru Aldundiaren *Abbadia* saririk gabe geratuko dela.

Gertatukoak, garrantzi handirik ez badu ere, egoki islatzen du erakundeek, Eusko Jaurlaritzak, Gipuzkoako Foru Aldundiak, Euskaltzaindiak eta unibertsitateak, besteak beste, *Txillardegirekiko* izan duten jarraera. *Txillardegik* ez du sekulan bilatu erakunde publikoen itzala edo gorazarrea, nonahi eta noiznahi bere buruarekiko fidela izan da. Onerako eta txarrerako. Eta fidelitasun klase hori, gure gizarte honetan, ez da saritzen.

Justu hamar urte bete dira (1999), UEUK, Iruñeko Udako Ikastaroe-tan, omenaldi bat antolatuta ziola. Jose Luis Alvarez Enparantza, *Txillardegi*, Antiguako irakaslea, euskaldun ikasia, ingeniaria, filologoa, soziolinguistikari aditua, euskararen ahozotasunaren ikerlaria, abertzale sutsua, Euskaltzaindikoko urgazle *iraunkorra*, *enfant terrible*, piano-jolea, irakurle porrokatua eta gizon aurrerakoaia. Modu horretan aurkeztu nuen omenaldi hartan *Peru Leartzako* eleberraren idazlea. Irakurleak nahi badu, *Txillardegiren* lan batzuen zerrenda *Literaturaren Zubitegia* web gunean (<http://zubitegia.armiarma.com/egileak/00130.htm>) aurki dezake. Gramatika, Historia, Narrazioa, Nobela eta Saiakera izan dira, besteak beste, idazleak jorratutako alorrak. Baina, gune horretan, bere ibilbide akademiko eta ikertzailearena itzalean geratzen dira.

Txillardegi unibertsitateko irakaslea eta ikertzailea izan da; hizkuntzalaritza, fonologia eta soziolinguistika izan dira, esaterako, berak landu dituen jakintza-alor eta ikerketa-eremutako batzuk. *Inguman*, euskal komunitate zientifikoaren datu-basean (<http://www.inguma.org>), 121 sarrera dagozkie *Txillardegiri*. Zerrenda horretan ikus daitezke, hain zuzen ere, irakasleak landu dituen gaiak. Jose Luis Alvarez Enparantza izan da euskara batuaren sustatzaileetariko bat, berari zor diogu, besteak beste, euskara hizkuntza garaikidea bihurtzea. Eta, *Txillardegik*, beste lagun batzuekin, sortu zuen aldizkari hau. Horrela, BAT Soziolinguistika Aldizkariaren aurreneko alean, *Txillardegik* honela idatzi zuen: Gure nazio-hizkuntza berriro mintzabide eta oinarri bihurtuko bada, beraz, bi gauza lortu behar ditugu; eta lortzekotan laguntzeko sortu da eskuetan duzun aldizkari hau.

Bata, hizkuntzaren alorreko fenomenoak ahalik eta ongienik ezagutzea. Lehenbizi jakin egin behar da, egia ezagutu behar da al bait zehazki-erik, beste herrietako saioak, arrakastak eta porrotak aztertu behar dira.

Beste, berriz, hizkuntza pizkundean herria bera interesatu gabe, soluziorik ez dagoela sinetsi eta sinestarazi behar dugu.

Txillardegiren ekarpenak soziolinguistika alorrean, jakintza-alor honetako Euskal Herriko aurreneko aldizkaria sortzeaz harago, maila teoriko eta praktikokoak izan dira. Esan genezake, neurri batean, soziolinguistikaren oinarri zientifikoak jarri dituela. Bere *Elebidun gizartearen azterketa matematikoa* (UEU 1984) eta *Soziolinguistika matematikoa* (UEU-EKB 1994) argitalpenak adibideetako batzuk dira.

Txillardegi, euskaltzale nekaezina, euskararen erabilerarekin biziki kezkatu egon da bere bitzta guztian. Gaur egun, puri-purian dagoen

BAT Soziolinguistika
Aldizkariaren aurreneko
alean, Txillardegik honela
idatzi zuen: Gure nazio-
hizkuntza berriro
mintzabide eta oinarri
bihurtuko bada, beraz, bi
gauza lortu behar ditugu;
eta lortzekotan
laguntzeko sortu da
eskuetan duzun aldizkari
hau.

*Bata, hizkuntzaren
alorreko fenomenoak
ahalik eta ongienik
ezagutze*

*Bestea, berriz, hizkuntza
pizkundean herria bera
interesatu gabe,
soluziorik ez dagoela
sinetsi eta sinestarazi
behar dugu.*

gaia, ingeniariak orain dela 25 urte jorratu zuen. *Txillardegi* irakasle bikaina da, eskolak emateko argia, suharra eta oso didaktikoa da. Halere, ez du arrakasta handirik soziolinguistikaren oinarri matematikoak zabaltzerakoan. Oso gutxi zabaldu da bere lan hori, ez unibertsitatean ezta ere *euskalgintzan* ikuspegi aplikatuan. Zergatik gertatzen den hori ulertzea ez zait erraza egiten. Badirudi, hizkuntzalari eta soziolinguistikako zaletu gehienei formalizazio matematikoa gaitza egiten zaiela. Baina, nago ere, arrazoi ideologikoak tartean daudela *Txillardegiren* ekarpenak bazterrean uzteko.


Nolanahi ere, soziolinguistika, oro har, eta Euskal Herriko soziolinguistika, bereziki, *Txillardegirekin* zorretan dago. BAT aldizkariaren ale honek balio dezala zor hori arintzeko. Bide horretatik, artikulu honetan, irakaslearen soziolinguistika matematikoaren ekarpen nagusiak, haien gaineko iruzkinak eta ekarpenen garrantzia azaltzen saiatuko gara.■

Egoera honetan, hiru hiztun-elkarteak ukipen egoeran bizi dira baina elebakarren multzoak (A, B eta C), oraindik existitzen direnez, hizkuntza bakoitzaren erabilera gertaera segurua da. Elebidun (AB, AC eta BC) eta eleaniztunen (ABC) hizkuntza-portaera, berriz, aldagarria da.

Alabaina hiztun-elkarteen etengabeko aldaketak direla eta beste egoera bat irudikatzen garamatza.


Egoera honetan, hiru hiztun-elkarteak ukipen egoeran bizi dira baina elebakarren multzoak (A, B eta C), oraindik existitzen direnez, hizkuntza bakoitzaren erabilera **gertaera segurua** da. Elebidun (AB, AC eta BC) eta eleaniztunen (ABC) hizkuntza-portaera, berriz, **aldagarria** da. Hau da, hiztun horien artean hizkuntza baten edo besteen erabilera **zorizko aldagaia** bihurtu da.

Alabaina hiztun-elkarteen etengabeko aldaketak direla eta beste egoera bat irudikatzen garamatza. Ikus dezagun:



3. grafikoa: hiru hiztun-elkarte, hizkuntzen arteko ukipen egoera.

Egoera horretan, itxuraz, hiru hiztun-elkarteek gordetzen dute bere osotasuna. A eta C hiztun-elkarteek elebakar multzo indartsuak dauzkate baina B hiztun-elkarteak hiztun elebakarrak galdu ditu. A eta C hizkuntzen erabilera, oraindik, **gertaera segurua** da. B hizkuntzaren erabilera, ostera, guztiz bihurtu da **zorizko aldagai**. Kasu honetan esaten dugu B hiztun-elkartearen etengabeko hizkuntzen arteko ukipen egoeran bizi dela. Horren ondorioz, B hizkuntzaren biziraupena erabat ezegonkorra bilakatu da, A eta C hiztun-elkarteen menpe baitago; A eta C hiztun-elkarteen barruan, murgilean, bizi da. Horrela, bizirik irauteko, barnekoherioa, *trinkotasuna* J. M. Sánchez Carrión, *txepetx* ikertzailearen adieran, funtsezkoa da.




4. grafikoa: hizkuntzen arteko ukipen egoera, hiztun-elkartearen zatiketa.

Hiztun-elkarte bat erabateko hizkuntzen arteko egoeran murgildurik bizi, eta zatitzen denean, bere hizkuntzaren erabilera nabarmen zailtzen da. Hori da gurean gertatzen dena.

Euskal Herrian bizi dugun egoeran, hiztun guztiok dakigu erdaraz eta bakan batzuk soilik dakigu euskaraz. Pertsona oro, biziko bada, hiztuna da, eta pertsona batek hizkuntza bi, hiru edo gehiago jakin ditzake. Norbanakoaren gaitasunetatik harago, ez dago, maila pertsonalean, aparteko eragozpenik hizkuntza bi edo gehiago jakiteko. Ikuspegi sozialetik ere, hizkuntzen **ezagumenduak fenomeno bateragarriak** dira. Termometro analogiko bikoitzaren metaforak egoki irudika ditzake adierazi nahi duguna: Aztertzen ari garen hizkuntzen arteko ukipen egoeran, hizkuntza nagusiak (A) erabat beteko luke neurgailua (%100 marra beltza) eta

hizkuntza gutxitua, berriz, neurri jakineraino (%28, 1. irudian), iritsiko litzateke; nekez, ia ezinezko, ostera, %100eraino.



1. irudia: Hizkuntza gutxituaren (B) jakite-maila hizkuntzen arteko ukipen egoeran.

Honekin adierazi nahi dugu gizartean hizkuntza gutxituaren (B) eza-gutza-maila handiagoa edo txikiagoa izan daitekeela, hizkuntza gutxi-tuak hiztunak irabaz edo gal ditzakeela. Baina egoera soziolinguistikoa errotik aldatu ezean hizkuntza nagusiaren (A) ezagutza-maila beti %100a izango da, **konstantea** da. Hau da, gizartean hizkuntza gutxituaren eza-gutza-maila handitzeak ez dakar, berez, hizkuntza nagusiaren ezagutza-maila murriztea.

ELEBAKARRAK: HIZKUNTZA GUTXITUAREN ERABILERA-MUGAK

Seguru asko, *Bat* aldizkari honen irakurlearentzat, orain arte esandako guztiak gauza jakinak dira. Halere, esandakoak, nire ustez, etengabean gogoan izan behar ditugu ondo ulertu nahi badugu euskararen erabilera-maila ez dagoela —soilik— euskaldunen esku. Bakarrik euskaldunen artean, solaskide guztiak elebidunak direnean, esan dezakegu, ziurtasun osoz, euskararen erabilera euskaldunen esku dagoela. Hau da, hain zuzen ere, *Txillardegik* argitu eta frogatu duen funtsezko ideia. Horren arabera esan dezakegu, aurrenik eta behin, euskararen erabilera, hizkuntzen arteko ukipen egoeran, **zorizko aldagaia** dela eta, hurrena, erabile-ra-maila, halaberrez, mugatua dela.


Eta hizkuntzen erabileraz berbetan hasita, aitor dezagun, elebidunen artean hizkuntzen erabilera-maila, hizkuntza batena eta bestearena, zen-batekoa den jakitea zaila izan daitekeela. Lehen esan dugu hizkuntza gutxituaren erabilera **zorizko gertaera** dela. Baina elebakarrak eta elebi-dunak elkarren artean biltzen direnean, elebakarren hizkuntza erabiliko da, hori **gertaera segurua** da, komunikazioa egongo bada, behintzat. Printzipio simple eta ukaezina da: ahozko komunikazioan, solaskideen artean elebakarrik dagoenean, elebakarren hizkuntza erabiliko da. *Inkomunikazio orokorrean, elebidunen arteko jokabideak ez du inolako eraginik. Ez baita inoiz inkomunikaziorik gertatzen elebidunen erruz. Inkomunikazioa beti da elebakarren ondorioa. Inkomunikazioa elebidunen lepora egozte, zentzugabeke-ria hutsa da. (Soziolinguistika matematikoa, 93. orrialdea)* Eta, ildo beretik, elebidunek, elebidunak direlako, hain zuzen, ez dute inoiz tentsiorik jasaten (beti egoki baitaitezke, egoeraren arabera, A zein B erabiliz); eta ez dute inoiz tentsio-rik sortzen. Tentsioak, bai jasan bai sortu, elebakarrek jasaten eta sortzen dituz-

B hizkuntzaren erabilera, ostera, guztiz bihurtu da zorizko aldagai. Kasu honetan esaten dugu B hiztun-elkartea etengabeko hizkuntzen arteko ukipen egoeran bizi dela.

Horrela, bizirik irauteko, barne-kohesioa, trinkotasuna J. M. Sánchez Carrión, txepetx ikertzailearen adieran, funtsezkoa da.

Hiztun-elkarte bat erabateko hizkuntzen arteko egoeran murgildurik bizi, eta zatitzen denean, bere hizkuntzaren erabilera nabarmen zailtzen da. Hori da gurean gertatzen dena.

diak eragiten dituztela. Elebidunen proportzioa handitzen denean, ostera, orain 5. grafikoan, funtzioa gorakorra denean, erabilerearen hazkuntza gradientea gero eta handiagoa da. Fenomeno hori da, hain zuzen ere, Euskal Herriko udalerrietan ikusi duguna kaleko euskararen erabilera neurtu dugunean (EKB eta Soziolinguistika Klusterra); udalerrri oso euskaldunetan, gehienetan udalerrri txikietan, elebidunen proportzioan zertxobait galtzeak erabilerearen galera esanguratsuak dakartza eta, aitzitik, euskaldunen proportzio txikiko udalerrri eta hiri handietan, berriz, elebidunen proportzioaren hazkuntza nabarmenak erabilerearen igoera apalak ekartzen ditu. Enpirikoki ikusi ahal izan dugu fenomeno hori egindako erabilerearen neurketetan. Hizkuntza gutxituaren erabilerearen funtzioak ondo azaltzen du fenomeno hori.



6. grafikoak: hizkuntza gutxituaren erabilerearen funtzio beherakorra.

Edozein modutan, euskaldunen euskararen erabilera *handia* ala *txikia* den esan ahal izateko, hizkuntza gutxituaren erabilerearen atalase-mailak ezagutzea ezinbestekoa da. Adibidez, Bilbon euskaldunen proportzioa %24,3koa da (EUSTAT 2006), horren arabera, itxaron daitekeen euskararen erabilere-maila *gizartean*, gehienez, %5,9ko —bikoteetan— eta %0,08ko —boskoteetan— bitarteko balioen bat izango litzateke. Hau da, Bilboko kaleetan euskararen erabilere-maila %6tik gorakoa izateak esan nahi du erabilere-maila *handia* dela. Atalase-mailatik azpiko balioak —%5etik beherakoak, kasurako—, berriz, adieraziko luke erabilere *txikia* dela. Donostian, beste kasu bat, elebidunen proportzioa %40,25koa da (EUSTAT 2006), horrela, itxaron daitekeen euskararen erabilere-maila, gehienez, %16,28 eta %1,07 balioen artekoen bat da —bikote eta boskoteetan—. Donostiako kasuan, bada, kaleko euskararen erabilere-mailak *handia* izateko %16,5eko langa gainditu beharko luke, gainditu ezean, bestela, *txikia* dela iritzi geniezaioke.

Hizkuntza gutxituaren erabilere-mailen interpretazio *objektiboa* egin ahal izateari ekarpen erabakigarria deritzot. *Txillardegiri* zor diogu ekar-

Txillardegik argitu eta frogatu duen funtsezko ideia. Horren arabera esan dezakegu, aurrenik eta behin, euskararen erabilera, hizkuntzen arteko ukipen egoeran, zorizko aldagaia dela eta, hurrena, erabilere-maila, halaberharrez, mugatua dela.

Ahozko komunikazioan, solaskideen artean elebakarrik dagoenean, elebakarren hizkuntza erabiliko da.

Elebidunek, elebidunak direlako, hain zuzen, ez dute inoiz tentsiorik jasaten (beti egoki baitaitezke, egoeraren arabera, A zein B erabiliz); eta ez dute inoiz tentsiorik sortzen. Tentsioak, bai jasan bai sortu, elebakarrek jasaten eta sortzen dituzte. Zenbait egoeratan, elebakarrak direlako preseski, "egokitzerik" ez daukatelako. Elebidunek zer probabilitate-maila daukaten hizkuntza gutxitua erabili ahal izateko balio jakingarria da.

pen hori. Izan ere, ez baitago beste metodo zientifikorik hizkuntza gutxi-tuaren erabilera-maila kalkulatzeko eta interpretatzeko. Edo, bederen, ez dugu ezagutzen.

Ipini dezagun beste adibide bat. Demagun, ikastetxe batean 85 irakasle dauzkagula eta ezagutzen dugula euren hiztun-tipologia nolakoa den.

Hiztun-tipoak		
Erdaldun elebakarra	17	%20,0
Elebidun hartzailea	18	%21,2
Elebidun alfabetatu gabea	0	%0,0
Elebidun osoa	50	%58,8

%58,8 **ELEBIDUNAK**

1. taula: klaustroko irakasleriaren hiztun-tipoak.

Demagun ere, ikasturtean zehar irakasleen arteko hizkuntza harremanak aztertu ditugula eta, oro har, euskararen erabilera-maila %57ra besterik ez dela iristen. Nola interpretatu behar dugu erabilera-maila hori? Posible da klaustro horretan, hiztun-tipo horiekin, euskararen erabilera-maila %100era iristea?

Klaustroko irakasle euskaldun horiek ahal duten guztietan euskaraz egingo balute ($m_B=1$), itxaron daitekeen erabilera-maila honoko hau izango litzateke:

$$E_e = \left[1 \left(0,5358(0,588)^2 + 0,291(0,588)^3 + 0,1732(0,588)^4 \right) \right] 100 = 26,5$$

Bistan da, klaustro horretan behatutako euskararen erabilera-maila (%57) oso handia dela. Gertatzen dena ulertzeko, hipotesi bat da *elebidun hartzaile* horiek (%21,2), funtzionalki euskaldun gisa portatzen direla. Hau da, elebidunen proportzioa %58,8 ($e_X=0,588$) izan baino, elebidun hartzaileak aintzat hartuz, %80 ($e_X=0,8$) jotzen badugu:

$$E_e = \left[1 \left(0,5358(0,8)^2 + 0,291(0,8)^3 + 0,1732(0,8)^4 \right) \right] 100 = 56,29$$

Ikusten denez, kasu honetan, klaustro horretan behatu den euskararen erabilera-maila eta *Txillardegiren* formularen bitartez kalkulatu dena ia-ia bat datoz. Errealitatean, adibidekoak datu errealak baitira, ikastetxe horretan neurtutako euskararen erabilera-maila %39,7koa besterik ez zen izan. Hau da, ezin esan daiteke *elebidun hartzaile* guztiak funtzionalki euskaldunak direnik, edo euskararen erabilerearen sarera bilduta daudenik.


Adibideak adibide, hizkuntza gutxituaren hiztunen portaera linguistikoa ezin ebalua daiteke, edozein kasutan, inolako argudio zientifikorik erabili gabe, ez da zilegi euskaldunei leporatzea euskararen erabilera-

maila eskasa denik zergatia azaldu gabe. Euskaltzale guztiok nahiko genuke euskararen erabilera-maila handiagoa izatea, baina hizkuntzen arteko ukipen egoeran bizitzeak, erdaldun elebarkarren eraginez, hizkuntza gutxituaren erabilera mugatua izatea dakar. Berez.

BATERAEZINTASUNA, ISOTROPIA ETA ANISOTROPIA

Arestian esan dugu hizkuntzen ezagumenduak bateragarriak direla. Orain, berriz, hizkuntzen ahozko erabilerari gagozkiolarik, hizkuntza bat baino gehiago **aldi berean** erabiltzea ezinezkoa dela esaten dugu. Adibidez, dokumentu idatzietan hizkuntza bi, edo gehiago, aldi berean, orrialde berean, ager daitezke. Baina irakurtzen dugunean, aldian hizkuntza bat bakarira irakurriko dugu; jauzika ibil gaitzke batetik bestera, bizkor-bizkor nahi bada ere, hizkuntza bateko eta besteko testuak konpara ditzakegu ere, baina bi hizkuntzatan **aldi berean**, doi-doi, irakurtzea ezinezkoa da, elebidunon, eta eleaniztunen, garunak hizkuntzak sekuentzialki prozesatzen baititu. Guk esan/irakur dezakegu: *txakurra* eta, ondoren, segituan, ziztu bizian, agian, *perro*, edo *chien*, baina ez *txakerro*, *pekurra*, *txachierro* edo antzekorik.

Lehenengo irudian (ikus 1. irudia), azaltzen genuen hizkuntzen arteko ukipen egoeratan hizkuntzen jakite-mailak **bateragarriak** direla. Hizkuntzen erabilerei dagokienez, ahozko erabilerei dagokienez, behinik behin, **bateraezintasuna** honela irudikatuko genuke.



2. irudia: Hizkuntzen erabilerak hizkuntzen arteko ukipen egoeran.

Lehenengo termometro analogiko bikoitza hizkuntzen erabileren neurriak irudikatuzko erabili dugu. Inkomunikazio egoerak **gertaezinak** direlarik, orduan, A eta B hizkuntzen erabilera sozialen mailak, ahozko erabilerak, bederen, **bateraezinak** dira. Bat erabiltzeak bestea ez erabiltzea dakar. Elkarrizketa euskaraz entzuten dugunean, solaskideak euskaldunak direla ondorioztatzen dugu, bistan da. Fenomeno hau, oso arrunta beste aldetik, garrantzi handikoa da hizkuntza gutxituaren erabileraren neurketaz ari garenean. Kontuan hartu behar dugu hizkuntza gutxituaren erabilera, hizkuntzen arteko ukipen egoeran, **zorizko aldagaia** dela, agertzea edo ez agertzea **aldagarria** dela, alegia. Solaskideen artean, solasean ari badira, ahozko komunikazioa beti gertatzen da, eta, ahozko komunikazio horretan, solaskideak elebidunak badira, hizkuntza gutxituaren erabilerak proportzio bat har dezake.

Hizkuntza gutxituaren erabileraren neurria beti adierazle erlatibo da. Hau da, bere balioa zero denean, ez dugu ulertu behar ahozko komu-

Udalerri oso euskaldunetan, gehienetan udalerri txikietan, elebidunen proportzioan zertxobait galtzeak erabileraren galera esanguratsuak dakartza eta, aitzitik, euskaldunen proportzio txikiko udalerri eta hiri handietan, berriz, elebidunen proportzioaren hazkuntza nabarmenak erabileraren igoera apalak ekartzen ditu.

Hizkuntza gutxituaren erabilera-mailen interpretazio objektiboa egin ahal izateari ekarpen erabakigarria deritzot. Txillardegiri zor diogu ekarpen hori.

Euskaltzale guztiok nahiko genuke euskararen erabilera-maila handiagoa izatea, baina hizkuntzen arteko ukipen egoeran bizitzeak, erdaldun elebakarren eraginez, hizkuntza gutxituaren erabilera mugatua izatea dakar. Berez.

Hizkuntzen arteko ukipen egoeratan hizkuntzen jakite-mailak bateragarriak direla.

nikaziorik ez dagoenik, komunikazioa beste hizkuntzaren batean gauzaten dela baizik. Euskal Herrian bizi garen hiztun guztiak, salbuespenak salbuespen, erdaldunak gara. Eta erdaldunak garelako, hain zuzen ere, badakigu jakin ahozko komunikazioa erdaraz **gertaera segurua** dela, beti gauzagarria dela, alegia. Noranahi joanda, edonorekin hitz eginda, erdaraz komunikatu ahal izatea beti da gertagarria, hori esan nahi dugu. Komunikazioa euskaraz, ordea, ez da gertaera segurua, **zorizko gertaera** da, zenbaitetan gertagarria da eta bestetzueta ez, **probabilitatezko gertaera** da, alegia.

Lehen ikusi dugu hizkuntza gutxituaren erabilera-funtzioa (ikus 1. grafikoa). Funtzio hori, hain zuzen ere, **probabilitate-funtzioa** da. Funtzio horrek, jakina, ez digu esaten euskaldun jakin bat zein neurritan komunikatuko den euskaraz, bai, ostera, hizkuntzen arteko ukipen egoerako gizartean hizkuntza gutxituaren agerpena, batenaz bestez, zenbatekoa izan daitekeen.

Hizkuntza gutxituaren erabilera neurtzeko, interpretatzeko eta ebaluatzeko metodo zientifikoa izatea izugarriko aurrerapena da. Hasteko, egoera hobeto ulertzeko eta, jarraitzeko, egin ohi ditugun normalkuntza eta sustapen-planak gauzagarriak eta eraginkorrak izan daitezten. Metodo zientifikoa izatea abantaila da, bai, baina metodo zientifikorik ez izatea arriskutsua da. Metodo zientifikorik izan ezean, gaur egun gertatzen den moduan, edonork edozer esan dezake hizkuntza gutxituaren erabileraz. Eta, gainera, lasai geratu.

Urliak esan du, eta idatzi ere, neurtu izan den euskararen erabilera-maila *txikia* dela. Sandia ausartu da esaten, euskaldunok oso gutxi egiten dugula euskaraz. Eta Berendiak aldarrikatu du euskararen egoera tamalgarriaren erantzule bakarrak euskaldunak garela. Gezurra, Urliak, Sandia eta Berendia oker daude. Erabiltzen duten datu bakarra da euskararen erabilera-maila, ehuneko neurketa-eskalan, *absolutuki* zenbaki txikia dela. Ez dute inolako metodo zientifikorik hizkuntza gutxituaren erabilera-maila interpretatzeko. Nonbait, euren aurreiritziak, edo ideologiak, izan dira irizpide bakarrak. Bitxia da ikustea euskaltzale sutuak, euskaraz ahalik eta gehien erabiltzea nahi dutenak, eta euskararen aurkako etsai amorratuak, euskaraz entzutea ere nahi ez dutenak, interpretazioan bat etortzea, eta biek esatea euskaraz oso gutxi egiten dela eta, gainera, euskaldunok garela horren errudun.


Euskaltzale sutuak esango nieke, euskaraz gehiago egin nahi izateak ez duela neurtutakoa txikiagoa egiten, neurria, erlatiboki, ez dela txikia, handia baizik. Euskaldunok, oro har, ahal dugun gehienetan euskaraz egiten dugulako eta gehiago egiten ez badugu eragozpen handiak ditugulako dela.

Euskararen aurkako etsai amorratuari esango nioke euskaldunek hizkuntzen arteko asimetria sufritzen dugula eta ez daukagula behar adina aukerarik euskaraz egin ahal izateko, ahal dugun gehienetan euskaraz

egiten dugula eta hori dela, hain zuzen ere, neurtutako erabilera-mailak adierazten duena. Eta erantsiko nieke, azkenik, euskaraz gehiago egin ezin izana, besteak beste, elebakarren errua dela. Edozein kasutan, Urlia, Sandia, Berendiari eta guztioi gomendatuko nieke metodo zientifikoa erabiltzea. Eztabaida antzu asko saihestea lortuko genuke-eta.

Utz dezagun, bada, diskusio antzua eta hel diezaiozun, berriro, *Txillardegiren* diskurtsoari. *Txillardegik* bere *soziolinguistika matematikoan* fisikatik soziolinguistikara kontzeptu bat mailegaturik hartu du: *isotropia*. Norabide guztietan propietate berberak dituen substantzia, horrela definitzen du *Harluxet* Hiztegi Entziklopedikoak *isotropo* terminoa. Hizkuntzen arteko egoeran, hizkuntza gutxituaren erabilerak norabide guztietan propietate berberak dituenean, *gizarte-isotropia* gertatzen dela esango genuke. Eta, horrela ez denean, jakina, *gizarte-anisotropia* gertatzen dela esan beharko genuke. *Txillardegik* hizkuntza gutxituaren *gizarte-isotropia* honela zehazten du: *hiztun guztiak hiztun guztiekiko hizkuntza harremanetan* egotea (*Soziolinguistika matematikoa*, 119. orrialdea)

Gizarte-isotropia gertatzen denean, *gizarterakuntza-tasa* erabatekoa denean ($g=1$), hizkuntza gutxituaren erabilera mugatua da. Egoera horretan euskaldunek esfortzurik handienak egin behar dituzte erabilera-maila esanguratsua lortzeko.



7. grafikoa: Gizarte-isotropia, ezkerrean, eta gizarte-anisotropia, eskuinean.

Berriro esango dugu, Euskal Herriko egoera soziolinguistikoa hizkuntzen arteko ukipen egoera da. Egoera horretan euskara da hizkuntza gutxitua, euskaldun guztiak elebidunak dira, edo eleaniztunak, euskaldunen hiztun-elkartea zatiturik eta sakabanaturik dago. Askoz gehiago esan eta zehaztu daiteke, jakina. Baina aipatu ezaugarri horiek, bederen, ezinbestekoak dira *Txillardegiren* eredu matematikoa ulertzeko.

Neurtutako euskararen erabilera-mailek erakusten digute euskaldunok *gizarte-anisotropian* bizi garela. Gauzak horrela, euskararen erabilera azaltzeko *Txillardegik* lau kontzeptu proposatzen ditu:

1. EUSKALDUNEN —ELEBIDUNEN— PROPORZIOA.....(e_X)
Lurralde jakinean bizi diren hiztunen arteko elebidunak —euskaldunak— biztanleriarekiko.
2. EUSKARAREKIKO LEIALTASUNA.....(m_B)
Euskaldunen joera euskaraz egiteko, aukera daukatenean.

Badakigu jakin ahozko komunikazioa erdaraz gertaera segurua dela, beti gauzagarria dela, alegia.

Komunikazioa euskaraz, ordea, ez da gertaera segurua, zorizko gertaera da, zenbaitetan gertagarria da eta bestetzetan ez, probabilitatezko gertaera da, alegia.

Probabilitate-funtzioa da.

Euskaltzale sutsuei esango nieke, euskaraz gehiago egin nahi izateak ez duela neurtutakoa txikiagoa egiten, neurria, erlatiboki, ez dela txikia, handia baizik.

Euskaldunok, oro har, ahal dugun gehienetan euskaraz egiten dugulako eta gehiago egiten ez badugu eragozpen handiak ditugulako dela.

Txillardegik bere soziolinguistika matematikoan fisikatik soziolinguistikara kontzeptu bat mailegaturik hartu du: isotropia. Norabide guztietan propietate berberak dituen substantzia.

Txillardegik hizkuntza gutxituaren gizarte-isotropia honela zehazten du: hiltun guztiak hiltun guztiekiko hizkuntza harremanetan egotea.

3. SOLASKIDE-KOPURUEN HAZTAPEN-NEURRIAK(w_k)
Ahozko komunikazio askean bikoteek, hirukoteek eta abarrekoek daukaten pisua.
4. GIZARTERAKUNTZA-TASA.....(g)
Gizarte-isotropiaren adierazlea.

Lau osagai horiek ezagutuz gero, itxaron daitekeen euskararen erabilera-maila kalkula dezakegu. Edo, aitzitik, erabilera-maila zenbatekoa den ezagutzen badugu, euskararekiko leialtasuna edo gizarterakuntza-tasaren balioak kalkula ditzakegu.

HIZKUNTZA-LEIALTASUNA (m_B) ETA GIZARTERAKUNTZA-TASA (g)

Txillardegik hizkuntza-leialtasuna hizkuntza gutxituaren erabilera azaltzeko koefiziente gisa zedarritzen du (m_B). Hizkuntza-leialtasuna da, sinpleki, elebidunen joera hizkuntza gutxituaren erabiltzeko. Hizkuntza-leialtasunaren koefizientea **aldagarria** da, elebidunek hizkuntza gutxitua inoiz erabiltzen ez dutenean, zero balio du, eta, ahal duten guztietan, hizkuntza gutxitua beti erabiltzen dutenean bat balio du.

$$0 \leq m_B \leq 1$$

Hizkuntza gutxituaren erabilera-maila (p'_{nB}) eta elebidunen proportzioa (e_X) ezagutuz gero hizkuntza-leialtasuna honela kalkula genezake:

$$m_B = \frac{p'_{nB}}{e_X^n}$$

Esan moduan, hizkuntza-leialtasuna (m_B) ezin izan daiteke bat baino handiagoa. Alabaina, Euskal Herrian egin diren kaleko euskararen erabilera neurketetan, ordea, hizkuntza-leialtasunak bat baino balio handiagok erakutsi ditu udalerrri askotan. Horrek adierazten du, *Txillardegiren* esanetan, Euskal Herriko egoera gizarte-anisotropiakoa dela. Hau da, erdaldun elebatar batzuk, edo bat ere ez, elebidunekin —euskaldunekin— harremanetan bizi direla eta beste erdaldun elebatar batzuk, edo guztiak, berriz, aparte bizi direla. Erdaldunak bi multzotan bereizten dira, beraz.

- Euskaldunekin harremanetan bizi direnak: $g^* n_A$
- Harreman horietatik aparte bizi direnak: $(1-g)^* n_A$

Kasuan kasu, hizkuntza-leialtasunak kalkulatzeko:

Gizarte-isotropia denean ($g = 1$) $m_{nB} = 1 + \frac{p'_{nB} - (1 - e_A)^n}{e_X^n}$

Gizarte-anisotropia denean ($g = 0$) $m_{nB} = p'_{nB} \frac{(ge_A + e_X)^{n-1}}{e_X^n}$

Hizkuntzen arteko ukipeneko gizartea, linguistikoki, **aldagarria** da. Badakigu jakin, elebakarren desagerpenarekin, hizkuntzaren galerak jau-si kualitatiboa egiten duela, ondoren, hiztun-elkartearen zatiketarekin eta, azkenik, hizkuntza gutxituaren erabilera urritu eta ezabatu egiten dela. *Txillardegiren* eredu matematikoa oso lanabes eraginkorra da alda-keta horiek nola gertatzen diren aztertzeo. Berari esker, ikusi ahal izan dugu ukipen egoerako gizartearen aldagarritasuna zertan den, gizarte-anisotropia egoeran bizi garela eta, ikasi dugu ere, anisotropia eta hizkuntza-leialtasuna areagotuz euskararen erabilera-maila emendatu daite-keela. Ekarpn handiak, gure ustez.

SOZIOLINGUISTIKA MATEMATIKO APLIKATUA: EREDU ESTADISTIKOA

Aurten, 2009, 25 urte bete dira *Txillardegik Elebidun gizarteen azterketa matematikoa* (UEU 1984) argitaratu zuenetik. Orduz geroztik, asko zehaz-tu eta zorroztu da azterketa matematiko hori. Euskararen egoerari buruz askoz informazio gehiago eta zehatzago dauzkagu: zentsuak, erabilera-ren neurketak eta abar. Baliabide informatikoak eta metodologikoak ere, askoz hobekak ditugu.

Txillardegiren azterketa matematikoaren abiapuntutik hizkuntza gutxituaren erabilerearen gaineko eredu estatistikoa eraiki daiteke. Eredu estatistikoa, azterketa analitikoaren eratorpenak, hain zuzen ere, hizkuntza gutxituaren erabilera hobeto ulertzen lagun dezake eta, batez ere, normalkuntza plangintzetako emaitzak interpretatzeko eta ebaluatzeko tresna oso erabilgarri izan daiteke.

Arestian esan dugunez, hizkuntza gutxituaren erabilerearen ohiko neurria proportzioa da, ehuneko bat, alegia. Estatistiko horren ezauga-riak, proportzioarenak, ezagunak dira. Hortik hasita, egin behar dugu-na, bada, hizkuntza gutxituaren erabilerearen kasura egokitzea eta aplika-tzea da. Gizarte-isotropia gertatzen dela, kasu horretan, eredu estatistiko-aren ezaugarriak eta bete beharreko baldintzak zedarrituko ditugu.

EZAUGARRI DEFINIGARRIAK

Hizkuntzen arteko ukipen egoera honetan hiztun-multzo bat elebakarra da (n_a) eta beste hiztun-multzo bat elebiduna (n_x). Egoera honetan ez dago hizkuntza gutxituko hiztun elebakarrik ($N_B = 0$).

Horiek horrela, betetzen da, non,

N Hiztun talde osoa (biztanleria)
 N_X Elebidunen kopurua (euskaldunak)
 N_A Elebakarren kopurua (erdaldunak)

Neurtutako euskararen erabilera-mailek erakusten digute euskaldunok gizarte-anisotropian bizi garela. Gauzak horrela, euskararen erabilera azaltzeko Txillardegik lau kontzeptu proposatzen ditu:

EUSKALDUNEN – ELEBIDUNEN – PROPORTZIOA

EUSKARAREKIKO LEIALTASUNA


SOLASKIDE-KOPURUEN HAZTAPEN-NEURRIAK

GIZARTERAKUNTZA-TASA

Lau osagai horiek ezagutz gero, itxaron daitekeen euskararen erabilera-maila kalkula dezakegu. Edo, aitzitik, erabilera-maila zenbatekoa den ezagutzen badugu, euskararekiko leialtasuna edo gizarterakuntza-tasaren balioak kalkula ditzakegu.

Egoera horretan **hizkuntza gutxituaren erabilera zorizko aldagaia** da eta bere probabilitate-funtzioa funtzio normala da ondorengo parametro hauekin:

$$N(\mu_{p_B}, \sigma_{p_B})$$



8. grafikoa: Hizkuntza gutxituaren erabilera banaketa.

Hizkuntza gutxituaren erabilera mugak hauek dira: $0 \leq p_B < e_X$

e_X Elebidunen proportzioa.

p_B Hizkuntza gutxituaren erabilera-maila.

Hau da, hizkuntza gutxituaren erabilera-maila ezin izan daiteke elebidunen proportzioa baino handiagoa. Edo, hizkuntza gutxituaren erabilera-maila beti da elebidunen proportzioa baino txikiagoa.

BANAKETAREN PARAMETROAK

Gizarte-isotropia denean, eta hizkuntza gutxitua erabiltzeko aukera guztiak baliatuko balira, itxarondako hizkuntza gutxituaren batezbesteko erabilera-maila (erabilera itxaropen matematikoa), ondorengo izango litzateke:

$$E(p_B) = \mu_{p_B} = \left(0,5358(e_X)^2 + 0,291(e_X)^3 + 0,1732(e_X)^4 \right)$$

Formulan agertzen diren haztapan-neurriak ($w_2 = 0,5358$, $w_3 = 0,291$ eta $w_4 = 0,1732$) solaskide kopuruaren (bi, hiru edo lau) arabera pisuak dira. Betetzen da: $w_2 + w_3 + w_4 = 1$. Haztapan-neurri horiek enpirikoak dira euskararen kaleko erabileraren neurketetan (1989, 1993, 1997, 2001 eta 2006), hain zuzen ere, aurkitu ditugunak. Laukotetik gorago hitzun-taldearen pisuak zerora jotzen duela-eta, hiru haztapan-neurrietara doitu dugu formula. Eredu honetan, beraz, solaskide kopuruaren haztapan-neurriak konstanteak dira.

Desbiderapen estandarra, errore tipikoa, elebidunen proportzioa, — e_X — eta elebidun kopuruaren (euskaldunak) — N_X — arabera, ondorengo hau da:

$$\sigma_{p_B} = \sqrt{\frac{e_X(1-e_X)}{N_X}}$$

Errore estandarra ezagututa, probabilitate jakinen arabera (konfiantza-maila), hizkuntza gutxituaren erabileraren konfiantza-tarteak kalkula ditzakegu.

$$\left[\left(p_B + z_{\frac{\alpha}{2}} \sigma_{p_B} \right) \leq \mu_{p_B} \leq \left(p_B + z_{1-\frac{\alpha}{2}} \sigma_{p_B} \right) \right]$$

Andoain, Aramaio eta Basauriko kasuak aztertuko ditugu adibide gisa. Datuak EUSTATtik hartu ditugu, zentsuko datuak, eta EDB datu-basetik (Soziolinguistika Klusterra) erabilerari buruzko datuak.


Biztanleria	Ezagutza		Erabilera		μ_{p_B} σ_{p_B}		Konfiantza-tartea (%95)		
	Euskaldunak	e_X	Etxean	Kalean			$\mu_{p_B} + (-1,96) * z_{\frac{\alpha}{2}} \sigma_{p_B}$	$\mu_{p_B} + 1,96 * z_{1-\frac{\alpha}{2}} \sigma_{p_B}$	
Andoain	13.492	6.779	0,502	0,563	0,171	0,183	0,006	0,171	0,192
Aramaio	1.421	1.216	0,856	0,767	0,654	0,668	0,010	0,648	0,682
Basauri	44.124	7538	0,171	0,101	0,022	0,017	0,004	0,009	0,024

2. taula: Andoain, Aramaio eta Basauriko kasuak.

Taulan ikusten denez, udalerrri horietan soziolinguistika klusterrak neurtutako erabilera-mailak (*kalean* zutabe-burupeko zenbakiak) konfiantza-tarteetako barruko balioak dira. Horren arabera esan dezakegu kalkulaturako erabilera-maila (p_B) ez direla esanguratsuki ($p < 0,05$) urruntzen enpirikoki neurtutako erabilera-mailetatik (*kalean*).

Eredu estatistikoak, azterketa analitikoaren eratorpenak, hain zuzen ere, hizkuntza gutxituaren erabilera hobeto ulertzen lagun dezake eta, batez ere, normalkuntza plangintzetako emaitzak interpretatzeko eta ebaluatzeko tresna oso erabilgarri izan daiteke.

Soziolinguistika klusterrak neurtutako erabilera-mailak (kalean zutabe-burupeko zenbakiak) konfiantza-tarteetako barruko balioak dira. Horren arabera esan dezakegu kalkulaturako erabilera-maila (μ_{pb}) ez direla esanguratsuki ($p < 0,05$) urruntzen enpirikoki neurtutako erabilera-mailetatik (kalean).



9. grafikoa: Gizarte-isotropia eta anisotropiaren arteko muga.

Kontsideratuko bagenu hiru udalerrri horietako egoera gizarte-isotropia dela, hori eztabaidagarria izan arren, udalerrri horietako euskararen erabilera-mailak estatistikoki itxaron daitezkeenak direla esan dezakegu. Horrek esan nahi du, oro har, euskararen erabilera-maila handiagoak lor daitezkeela euskaldunen arteko *trinkotasuna* (gizarte-anisotropia) areagotuz eta euskararekiko leialtasuna handituz. Hiru udalerrri horien artean, erabilera-mailari dagokionez, okerren dagoena Andoain da, neurtutako erabilera-maila konfiantza-tarteko behe-mugan (0,171) doi-doi dagoelako. Basauriko egoera, berriz, ia gizarte-anisotropia dela jo dezakegu, enpirikoki neurtutako erabilera-mailak itxarondakoa gainditzen duelako (konfiantza-tarteko goi-mugatik oso gertu baitago). Azkenik, Aramaion, hirutik udalerrri euskaldunena, enpirikoki neurtutako erabilera-maila ez da iristen itxarondako mailaraino gertu egonagatik.

Saiatu gara erakusten zertan den hizkuntza gutxiaren erabilaren eredu estatistikoaren erabilgarritasuna. *Bat* aldizkariaren artikulua ez du ematen askoz gehiagorako. *Txillardegik* egindako ekarpenak, oraindik ere, ustiatu gabe daude. Eredu estatistiko bera eta erabiltzen diren kontzeptuak, gizarte-isotropia, gizarte-anisotropia, hizkuntzarekiko leialtasuna eta gizarterakuntza-tasa, besteak beste, argitzeko, sakontzeko eta erabiltzeko daude.■

ERREFERENTZIAK

- Alvarez Enparantza, J.L (Txillardegi). (1984). *Elebidun Gizarteen Azterketa Matematikoa*. Udako Euskal Unibertsitatea (UEU) – Iruñea
- Alvarez Enparantza, J.L (Txillardegi) eta Isasi, X. (1994). *Soziolinguistika matematikoa*. Udako Euskal Unibertsitatea (UEU) – Bilbo.
- Alvarez Enparantza, J.L (Txillardegi). (2001). *Hacia una Socio-Lingüística Matemática*. Euskal Soziolinguistika Institutua Sortzen (SEI) – Donostia

Txillardegik egindako ekarpenak, oraindik ere, ustiatu gabe daude. Eredu estatistiko bera eta erabiltzen diren kontzeptuak, gizarte-isotropia, gizarte-anisotropia, hizkuntzarekiko leialtasuna eta gizarterakuntza-tasa, besteak beste, argitzeko, sakontzeko eta erabiltzeko daude.